Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Usabiaga Etxeberria

Beasain, Gipuzkoa (1923-2013)



Aurkibidea

Biografia



Ugartemendi auzoko Ugartemendigoikoa baserrian jaio eta bertan bizi izan zen. Beasaingo hizkera jasotzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, bere anaia Juan Bautista (1924) eta Bitoriano Apalategi (1921) lagun zituela.

Zintak

BEA-018

- **Proiektua**: Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2005-08-02
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: MiniDV

BEA-019

- **Proiektua**: Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2005-08-02
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Erdararen indarra Beasainen; baserrietan euskaraz

- **Erref**: BEA-019/001
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Beasainen erdarak indar gehiago izan du. Orain euskarak hartu du indarra. Dena den, baserrietan beti euskaraz egin izan da. Beraiek dotrina ere euskaraz ikasi zuten.

Transkripzioa
- Euskera kontuak-eta hitz egingo ditugu? Hemen, Beasaiñen-eta…
- Apalategi: Beasaiñen…
- Beti izan da euskalduna o…?
- A: Ez, erderea.
- Usabiaga 1: Erderek indar gehio izan dik hemen.
- Bai, e?
- Us1: Oain euskerek indarra hartu [baldin bado´re].
- A: Bai. Oain, guk baserrittan euskerea, e?
- Us1: Baserrittan beti euskerea.
- Eta umetan eta?
- Us1: Bai, bai, bai, bai.
- A: Konparazio bateako, dotriñea´re guk euskeraz, e? Dotriñea… hori obligazioa zan. Oain, behin prailletan hasi giñen ezkeo, hango errezok eta gauzak danak erdeaz.

2. La Salle ikastetxean erdaraz ikasi zuten

- **Erref**: BEA-019/002

- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:00:45. **Bukatu**: 00:02:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
La Salle ikastetxean ikasitakoa. Erdaraz ikasi zuten. Hizkuntza eta politika.

3. Lazkaon euskara gehiago Beasainen baino

- **Erref**: BEA-019/003
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:02:20. **Bukatu**: 00:03:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Beasaingo kaleetan erdara gehiago entzuten zen euskara baino. Lazkao herri txikiagoa zen eta euskara gehiago mantendu zen. Lagun artean beraiek euskaraz egiten zuten.

Transkripzioa
- Eta [...] kalen erdera asko?
- Apalategi: Jendek erderea asko eitten zian, bai. E?
- Usabiaga 2: Euskerea gehiao Lazkaon.
- A: Baiño guk geok... guk geok...
- Us2: Lazkaon. Lazkaon euskerea asko ikusten dana. Ikusten zana, Lazkaon.
- Us1: Lazkao beti euskaldunagoa izan dek.
- Beasain baiño?
- Us 2: Bai, bai, bai, bai.
- A: Lazkao.
- Us1: Lazkao bai...
- A: Ttikigoa ta...
- Us1: Ttikigoa zalako ta, gaiñea, euskerentzako... Hemen beti...
- A: Baiño guk geon arten guk geok koadrillan juntau giñenen, e? Guk geok beti euskeraz, e? Guk euskerea ibili diau beti.

4. Neskei gehienetan "zuka" egiten zieten

- **Erref**: BEA-019/004
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:03:00. **Bukatu**: 00:05:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Berorika; zuka; hilka. Lagunartean edo familian nola egiten zuten. Neskei gehienetan zuka. Emakumeak beraien artean hika egiten zuten sarritan.

Transkripzioa
- Eta hika edo zuka edo nola izaten zen?
- A: Hori bai. Hortan´e beti... persona haundie hola...
- Us1: Hari beti bee errespetoa.
- A: ... haundi xamarra baldin bazan beorika.
- Beorika?
- A: Eta zaharragoa izan ezkeo, zuka. Eta...
- Gurasoei-eta?
- Us2: Apaizei´e beori. Beori apaizei´e.
- A: Gurasoei ta... Geon etxen... gu lau senide izan gea, izan gaittuk, e? Geen amakin. Zeatio ni sei urtekin aitteik be geatu nitxoan. Eta gue etxeen senidek alkarrekin hika danak, bata besteekin. Neri zu.
- Us1: Ttikiña...
- A: Anaiek ez, anaiek beti hi. Baiño arrebak-eta neri zuka.
- Amak´e bai?
- A: Bai. Ta ni neonek, ni neonek, anaiei hika, baiño senideei zuka, arrebai. Hortara. Ni hola izan naiz.
- Eta normalean holan izaten zan?
- Us1: Ba, modu askotan. Batzuk zuka, hika...
- Gurasoei beti zuka?
- Us1: A! Bai, bai, bai, bai.
- Us2: A! Gurasoei bai.
- A: Ta! Lehenao esan deana, e? Gue izeba Donostikoi-ta beorika.
- Bai, e?
- A: Bai.
- Us2: Ta apaizei beorika apaizei´e.
- A: Bai ta lehen “Ave Maria purisima” esaten ikusi ta gu korrika junda ta... Holako zea hoiek bagiñutzen.
- Eta neskekin zuka o hika?
- Us1: Jenealen zuka. Jenealen...
- A: Emakumei zu...
- Us1: Jenealen bai.
- A: Bai, bai, bai, bai.
- Us1: Hi neskari...
- A: Nik hi ez zekiat iñoi esan dioan. Ez, ez, hortan...
- Us1: Nik arrebai. Arrebai hika, baiño gaiñeakon emakumei iñoi hiik ez.
- Eta emakumek beraien arten?
- Us1: Segun...
- A: “Aizan”.
- Us1: Hika ta zuka ta...
- A: Hika gehio, e!
- Us1: Hika gehiao, e?
- A: Bai, bai, een arten bai, e?
- Us1: Bai, guk bezela! Guk bezela. [toka] ta hika. Bai, bai. Ta neskak alkarren arten jenealeen hika. Ez do esan nahi danak, baiño gehienbat bai.

5. Beasain gehiago erdaldundu zen Lazkao baino

- **Erref**: BEA-019/005
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:05:25. **Bukatu**: 00:06:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Lazkao herri euskaldunagoa. Beasainera kanpoko jende asko etorri zen eta herria erdaldundu egin zen.

Transkripzioa
- Eta hemen inguruko herrietan-ta euskera gehiena, orduan, Lazkaon? Ordizin ta Beasaiñen baiño gehiago?
- Us1: Hortan... fabrikako jende zea sartu huan honea, kastellanoa, kastellanizatugoa izan dek.
- A: Valladolid alde hortati ta... Bai.
- Us1: Bai. Burgos ta...
- A: Bai.
- Eta Ordizin?
- Us1: Ordizi kasi-kasi honek baiño euskera gehixio bezela. Hau ya kastellanogoa. Lehen. Lehengo kontuk.
- A: Fabrika haundie baitzan ta Renfek´e hor. Ta geo estazioa´re nola tokau zan, zea, kategoria gehiokoa Beasaingo hau, e? Hemen´e trenak bat o bi geatzen ez zienak, baiño gue aurrekok danak geatuko hittuan, zea, elektrifikazioa in baiño lehenao. Nola uden depositoa eta gauzak zeren...
- Us1: Estazioa, estazio prinzipalagoa da hemengoa Ordizikoa baiño. Ta, jakiñe, enpleatuk. Enpleatu jendea ta... Bai, hemen kastillano-jende asko.

6. Inguruko herrietako hizkeren arteko aldea

- **Erref**: BEA-019/006
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:06:35. **Bukatu**: 00:08:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Lazkao, Ordizia, Itsasondo, Ormaiztegi, Legorreta, Zumarraga eta Beasaingo euskara oso antzerakoak. Zegama, Segura, Idiazabal, Mutiloa, Zerainen beste ikutu bat du euskarak. Legazpikoa ere desberdina; baita Ataungoa ere.

Transkripzioa
- Eta lehen esan didazue hamen Lazkao, Ordizi ta Beasain inguruko euskera nahiko antzekoa dala, ez?
- A: Bai, bai. Olaberri, Lazkao, ta Ordizi ta Itsasondo...
- Us1: Hemen ez dao diferentziik. Itsasondon ta... ta Legorretan´e...
- A: Ta Ormaiztegi... hok danak. Geo... Ba, Zumarra(g)an´e bai, e?
- Us1: Zumarra(g)an´e bai.
- Ta zuek Zumarragakon bat entzun eta...
- A: Ez, ez diau...
- ... [...] hau ez da Beasaingoa?
- A: Ez, ez, ez, ez, ez. Hori Idiazabalgoi segurogo.
- Us2: Bai, Idiazabal ta...
- Us1: Gertugo eonaatio beste deje bat ematen dioe, Zegaman bezela.

- A: Zegama o Segurak´e bai.
- Us1: Segurak´e bai, e? Ta Mutillok´e bai. Zeraiñek´e bai. Horik ya... beste deje zera bat daukee.
- A: Eta Zumarragan, berriz, ya... hemengo...
- Us1: Bai, hemengo estilo [...].
- A: Ta Legazpi bertan, ondon, gertun daola, baiño ya hak´e...
- Diferente...?
- A: Bai.
- Eta Zaldibi ta Ataun eta?
- A: Zaldibi ez. Zaldibi´re honen estiloa.
- Us1: Bai, bai.
- A: Ataun ez, e? Ataunek ya...
- Us1: Ataun, Ataun...
- A: "Etxekook etoi gea". E?
- Beste doiñu bat?
- A: Bai. Bakoitzek bee... Ta, gaiñea, personea jarri eitten da aguro, eta, e? Nik Aizarnazabalen ikusi nun zeatio Aizarnazabalen beste deje bat ta nik han derrepente hartu nun hango dejea.
- Us1: Bai, gaztetan, berriz, oandik azkarrao.
- A: Bai, bai, bai.

7. Lantegiek lur asko hartu dute Beasainen

- **Erref**: BEA-019/007
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:08:05. **Bukatu**: 00:11:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Beasaingo baserriak beti nahiko koskorrak izan dira; lantegiek lur asko kendu dituzte. Lantegian noiz eta nola sartu zen.

Transkripzioa
- Eta beste kontu bat: lanbideak eta lehengo baserriko lanak eta zeintzuk izaten ziren? Zuek ganaua izaten zenduten edo...?
- A: Bai...
- Ala soro haundiak o...?
- A: Bi behi eukitzen...
- Us1: Hook baserri koskorrak beti izan die, baserri txikik. Hemen fabrika... fabrikaik be hemen ez zeoan defentsaik.
- Zuek fabrikan lan egindakoak zerate?
- Us1: Bai.
- Us2: Bai, gu danok fabrikan.
- Us1: Bai, bai, bai, bai.
- A: Bi behiekin ze ein behar genduan, ba? E? Fabrikan lana eman ziguenean gustoa, gaiñea! Fabrikea izan da neetzako zea, e?
- Us1: Bai, hoixe, gaiñeakontzako´re.
- A: Eskolea´re bai, e? Ni nola umea geatu nitzen, oso umea, nei asko maitte zien hemen. Ta fabrikan sartu zienen —bat hon osaba izan zan—, han zeren ofizialik hoben-hobenakin ibiliazin zin nei. Sei hillabete, urtebete pasatuazin, e? Ta nik gogon dauket, e? Gure ama zanai nola esan nion:

“Zuek nahi dezue neekin zerbait ittea baiño nik eskolaik ez dauket”. […] Zazpi urteti hamaika urtera bittarten bakarrik neuken. Zenbat eskola? E? Lau reglak, bastante ondo etortzen zitza(d)alako geometrie pixkat ta kitto. “Ta hemen dibujo lineala behar da”. Harek hitz ein zon zea batekin, delineante bat hemen eskolea ematen zoonakin, ta esan nion: “Ez [dedilla] nei arrastok-eta txuxen eitten, e? Pixkat gorago zala gauzea, e?”. Ta ein zin. Ta hue dala medio geo atzenen´e urtea soldau jun aurretik beste suizo injinero batekin euki zin berriz ta ni bastante formauta jun nitzen soldauskaa. Eta geo nik bastante dominau det planok eta taillerrak eta gauzak.
- Us1: Geo lan-klasea halakoa.
- A: Norbeak´e behar dik, e?
- Us1: Bai, baiño lan klasea´re halakoa.
- A: ... zenbaitti ez zaiok ezer´e sartzen! Nik planoa dominatzen nian nahi nun bezela. Ez zeoan injineroik nei eramaten zinik.
- Us1: Baiño hik izan baldin baho…
- A: Baiño eskolea nik han in nian!
- Us1: Baietz. Baiño guk bezela izan baldin baho, eskolaik behar ez dan lan-klase bat izan baldin baho…
- A: A! Kitto!
- Us1: … hor atzeandu […]. Nei hori pasau zitzaian. Eskolea beharreko lanik ez diau izan. Ente(nd)itzen dek? Lan rutinarioa. Ordun, eskolaik ez diau enpleatzen, ta lehen dakiun apurra ahaztu. Hurrena hasitakoon “aiba dios! Hau nola zan kontu hau?” ta… […] neri pasa zaiak!
- A: Bai, baiño hor zeok difentzie.
- Us1: Oain, […] eskolea beharrekoa, ordun praktikau eitten dek han ta… ordun… Baiño ez badek praktikatzen, hua beti herdoitzen juten dek. Herdoittu.
- A: Halako tokie tokau… Neri halako tokie tokau zat…
- Us1: Ba, horreatik esan diat, ba! Hori esan diat, ba!
- A: A! Hori…
- Us1: Ta hik han praktikau ein dek.
- A: Neetzako eskolea fabrikea izan da, fabrikea.
- Us1: Bai, ba. Ta geo daukean preparazio harekin, gaiñea, hua ta hik hari eutsi ein diok.
- A: Ba, eutsi… Ein […].
- Us1: Bai, ba!

8. CAF lantegia militarizatuta gerra denboran

- **Erref**: BEA-019/008
- **Iraupena**: 0:05:15. **Hasi**: 00:11:10. **Bukatu**: 00:16:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Goierriko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:
Baserritar asko hasi ziren lantegietan lanean. Jornala zenbatekoa izaten zen. Lantegi handiak Beasainen: CAF eta Bernedo. Egoera industriala Beasainen. Errepublikaren aldarrikapena eta lantegietako egoera. Gerra garaian, CAF-en bonbak eta gerrarako munizioak egiten zituzten; militarizatu egin zuten lantegia.

Transkripzioa
- Normala izaten zen baserritarrak-eta fabrikatan lan egitea?
- A: Normala... jakiñe, etxe txikik zien ta... Baakizue, garai hartan esnea lau txakur haundin saltzen zan, ta baserrin familiik bee gastue do, nahiz gutxi izan. Ta asko jun zien baserritarrak, itxurako baserritarrak, lau abere zeuzkenak een irikin ta fabrikaa jun zien. Ta jornal bat, zortzi pezta izaten zien haseran, baiño... Ta hue seguroa.
- Bai, baserria baiño seguroagoa...
- A: Bai, ba; bai, ba. Ta geo, ba... Hori zuri... zuei ez [dizue] eze eakutsi nola jun dan gauzea hemen. Hemengo jendea bea zea haundikoa izan dek, arranke haundikoa. Ta tailler txikik jarrita-ta, gu baiño hobeto danak etaa dittuk. Zeatio Gipuzkoa nola daon zuek ondo asko dakizue. E? Industria asunton. Zeatio guk ezautu gendun bezela Beasaingo fabrika haundie eta zea [Bernedo].
- Us1: Bai.
- A: Ta kito.
- Us1: Hue itxi huan.
- A: Bai, ba. Ta geo batak txapista in zola, bestek ez zekiat ze in zola, bazekiat ze in zola... bakoitzek bee taillerrak-eta jartzen hasi ta hala jun dek Gipuzkoa. Aber...
- Eta zuen gurasoen sasoian ere bai? Zuen aita, osaba...?
- Us1: Gure... gure... aitte ta senideek eta, danak fabrikan izan dittuk.
- Bai, e?
- Us1: Bai, bai.
- Us2: Aittejaune ez. Aittejaune ez.
- A: Aittejaune ez. Baiño gure aitte zanan garaiko jendea ya fabrikara.
- Us1: Gure gurasook... Gue osaba Pedro zana, gaiñea, hua Bilbaon hamalau urte... hamalau urte in bae... Geo jarri huan Republikako deboran hamalau urtera bittarten lanik ez hastea, lanen ez hastea ta hoi dana. Harek... uste diat hamabi-hamahiru urtekin o hasi zala lanen.
- A: Hori ez nian jakin...
- Us1: Haren garaie ya beste zea bat zan. Ta geo´re ze? Lana... ze...
- A: Geo, baakik, hok´e nola fabrika gertun zeren...
- Us1: Bai, hemen [...] gertu.
- A: Geo etorri zanen... Orduako gurea hilda huan, zeatio hillen hoeta zazpin hil huan gue aitte. O... urtea... hogeta zazpin hil huan gure aitte zana berroita bi urtekin. Baiño gazte-jendea ta geo Republika zorioneko hua etorri zanen hari boikota nola ein beharko zitzaioan, e? Boikota ein beharko... Ta ordun etorri huan hemen lanik ezak eta lehenao honek esan dittun histori horik danak. Ta geo hue pixkat txukintzen hasi zanen berriz mo(b)imentue etorri huan ta a tomar por sako!
- Us1: Bai, danak se(g)idan!
- A: Ordun lan faltaik ez huan izan, e?
- Us1: Ez, ordun lana bahuan.
- A: Ni motikotan sartu ta ehun ta berrogei bonba eitten aittu giñutzean hor, e? Fabrikan.
- Us1: “Material de guerra”. Militarizau ta...
- A: Bai.

- Us1: Dana militarizauta… danetan.
- A: Bonbea jarri hemen ta…
- Us1: Brazalete urdin bat —pantaloien koloreko brazalete bat— ta harek artilleriko bonbea, artilleriko soldadun bonbea han. Harekin.
- Zu´re bai?
- Us1: Ez, gue gurasok.
- A: Ni, ni…
- Us1: Hau bai; gu ez.
- Hamabost-hamasei urterekin?
- A: Jakiñe. Geo soldauskara bittarteko zea hortan nola harrapau zien, ba… Ta… berrehun ta berroita hamar bonba berrehun kilokok egunero eitten hittuan han, e?
- Bai, e? Ze fabrikatan?
- Us1: CAF.
- CAF-en?
- A: Bai, bai, bai. Ta geo beste hotan granadak eta… beste mekanikon fundizion ta horittan. Baiño… Eta Ormaiztegiko zubie nola botata zeon ordun, garai hartan, automobillen eamaten zittuen hemendio zeaa Zumarragaa kajatan sartuta, ta geo hortik Mirandaa o… Ta geo zer ta Bilbon botatzeko. Horixe! Bai, bai, hori hola izan da.
- Eta noiz izan zan hori? Gerra…
- Us1: Gerrako garaien.
- … hasi ta…
- A: Gerrako…
- Baiña azkar? Azkar? Nazionalak sartu eta…?
- Us1: Bai, bai, handik seittun ya mo(b)imentu hoi jarri zien: militarizau ta benga! material de guerra eitten.
- A: Bai, ni neoni lehendabizi metroko kotxetan jartzen zian. Lehenao esan diat nik zerbait nola ibili zien batetik bestea ta. Geo, sobra´re etorri huan beste hori in behar zala ta, han jarri zoen Pio zana ta biok. Ta motikok eta, jakiñe, aindutakoa in behar!
- Eta ze egiten zan? Granadak, bonbak…?
- A: Granadak eta horik guk ez giñutzean montajen sekula ein. Horik hemen fundizio alde hontan ta alderdi hontan. Ta beste horik…
- Us1: Bonba… abiazioko bonban zeak gure taillerren ein zien, […], prentsan. Zea, punta eitten emen zittien.
- A: […].
- Us1: Bai.
- A: [Aurrekoa, muterrekoa].
- Us1: Bai.
- A: Hola, mutur bat.
- Us1: Muturra…
- A: Aurrekalden zulo bat bee roskekin. Geo handik […], guk geo handik… Jakiñe, despiezea juten huan hautza.

9. Aristrain lantegia; txirrindularitzako kontuak

- **Erref**: BEA-019/009
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:16:25. **Bukatu**: 00:19:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Goierriko lantegiak

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:
Aristrain lantegia (egun Aceralia dena). Bitorianoren anekdota Aristrainekin. Apaletegi txirrindularia, oso ona. Txirrindularitza kontuak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-25

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com